

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa

Gazte Saria

2019an Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria sortu zenean, **Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien** Sariaren osagarri bat bezala jaio zen; gazteen etorkizuneko lagungarri moduan. Alor horiek jorratzen, ikertzen, aztertzen, bizitzen diharduten gazteen ibilbidean, lehen urrats hauen garrantziaz ohartuta, sariak mugarri nagusi bat izan nahi du.

◆ Sarituko diren proposamen motak

Bi motatako proposamenak onartuko dira:

- **Sorkuntza-proiektuak lantzeko:** humanitateen, kultura, arteak –zentzu zabalenean: musika, dantza, margogintza, eskulturagintza, literatura, ikus-entzunezkoak...– edo gizarte zientzien alorreko proiektuak gauzatzeko.
- **Ikerketak burutzeko:** Humanitateen, kultura, arteak eta gizarte zientzien gaietako izaera zientifiko-akademikoa duten ikerketa edota lan artistikoa gauzatzeko nazioarteko goi mailako erakundeetan egonaldiak gauzatzeko saria.

◆ Parte-hartzaileak

Sorkuntza-proiektuak lantzeko banakoei edota taldeei zuzenduta dago. Ikerketak burutzekoak, aldiz, bakarka aurkeztu beharko dira.

Hautagaiek, banakoa nahiz taldea, 1987tik aurrera jaiotako gazteak izan behar dira.

◆ Saria

6.000 euroko sari bakarra emango da.

Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritzi gero.

◆ Bete beharreko baldintzak

Saritutako pertsona edo taldea, emate ekitaldian parte-hartzea ezinbesteko baldintza izango da saria jasotzeko. Saritutako lanaren ekarpen nagusiak bilduko duen artikulua bat idatzi beharko da *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *RIE* (Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria) argitaratzeari begira.

Proposamena originala izan beharko da. Ezingo da beste erakunde batek ere babesten duen proiekturik aurkeztu. Saritutako lanak gizarteratzean, saria ematen duten erakundeen aipamena egin beharko da.

Saritutako lanaren lagin bat hurrengo urteko sari-emateko ekitaldian aurkeztu beharko da.

- **Sorkuntza-proiektuetarako:** Saritutako lana 2022 eta 2023 urte bitartean gauzatu beharko da hala beharrez. Saria jasotzeak aurkeztutako lana gauzatzeko betebeharra dakar berekin. Sariaren ordainketa, sari emate ekitaldi egunean gauzatuko da.
- **Ikerketak burutzeko proposamenetarako:** Saritutako ikerketa 2022 eta 2024 urte bitartean burutu beharko da. Saria jasotzeak aurkeztutako ikerketa gauzatzeko betebeharra dakar berekin. Sariaren ordainketa, egonaldiaren hasieran egingo da.

◆ Balorazio irizpideak

Epaimahaiak kontuan hartuko dituen irizpideak honako hauek izango dira:

- Hautagaien curriculum vitae
- Edukia sariaren helburuekin lerrotatuta egotea
- Izaera berritzailea
- Etorkizuneko proiektzioa
- Originaltasuna
- Gaurkotasuna
- Euskararen erabilera
- Nazioarteko proiektzioa
- Ikusgarritasuna
- Egingarritasuna
- Aurkeztutako lanak genero ikuspuntua eta hizkuntzaren erabilera ez sexista erabiltzea

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa

Gazte Saria

◆ Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da:

- Lanaren memoria: izenburua, laburpena, helburu zehatzen deskribapena, kronograma edo plangintza, helburu orokorrak (bost orrialde gehienez). Baldintza hau betetzen ez dituzten hautagaiak ez dira onartuak izango.
- Aurkezlearen Curriculum Vitae laburtua. Taldearen kasuan, kide guztien CV. Taldean aurkeztu ezker arduradun bat izendatu beharko da.

Curriculum Vitae laburtua Eusko Ikaskuntzaren webgunetik deskargatu daitekeen ereduari egokitu beharko zaio derrigorrez. Dokumentazioa euskarri informatikoan info@eusko-ikaskuntza.eus helbidera bidali behar da.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du oinarrietan zehazten diren baldintzak berariaz eta formalki onartzen direla.

◆ Epeak

Hautagaiak aurkezteko epea **2022ko martxoaren 1etik 31a** bitartean izango da. Epaimahaiaren erabakia 2022ko maiatzean jakinaraziko da eta sari-ematea 2022ko udan gauzatuko da, baldin eta osasun egoerak ahalbidetzen badu.

◆ Epaimahaia

Epaimahaia Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak alorreko adituek osatuko dute.

◆ Ustiapen eskubideak

Saritutako lanaren ustiapen eskubideak Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak izango dituzte. Horrek ez du esan nahi, sarituak espresuki eskatuta, bere erabilerarik ezingo duenik egin.

◆ Informazioa

Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia.
Tel.: 943-310855
info@eusko-ikaskuntza.eus
www.eusko-ikaskuntza.eus